*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

***Beñat Verde, alcalde de Elizondo:*** *Hicimos el batzarre de Elbete y Elizondo y se decidió dejar sobre la mesa hasta que se aclararan algunas dudas.*
***Fernando Anbustegi, presidente:*** *Dejarlo sobre la mesa, ¿se propone algo para aclarar esas dudas?*
***Mikel Sobrino, juntero:*** *En el batzarre salió un escrito de 11 puntos, las principales dudas, viendo que los que estábamos allí no podíamos contestar, ese escrito de 11 puntos lo registramos en el Ayuntamiento, la intención era obtener la respuesta cuanto antes, entendemos que ha sido un proceso largo y que al no tener toda la información en el último momento no pasa nada por alargarnos un poco más.*
***Fernando Anbustegi, presidente:*** *El Ayuntamiento recibió, vía registro, esos 11 puntos el jueves y se le hizo llegar a la empresa. Es cierto que la respuesta a todas las preguntas no las tenía que dar la empresa, el primer punto lo tenía que aclarar el Ayuntamiento. El viernes por la tarde la empresa nos envió la respuesta por Whatsapp y el viernes se envió a todos los/as alcaldes/as, en algunos pueblos tenían batzarre y en otros no, pero se envió a todos los/as alcaldes/as.*
***Mikel Sobrino, juntero:*** *Sí, sí los/as alcaldes/as lo recibieron, el asunto es recibir la respuesta a esas preguntas que quería la gente que estaba en el batzarre de Elizondo. Lo que se pedía era que, en un batzarre de Elizondo, la empresa, aclarara estas cosas, no sólo a los alcaldes sino a la gente de Elizondo, que se enviara sólo a los/as alcaldes/as, no es suficiente para nosotros. Por eso pedimos que se deje encima de la mesa, estamos dispuestos a empezar a hablar y si se ata todo, hacer una extraordinaria, pero pedimos que se deje de momento encima de la mesa.*
***Mattari Plaza, alcalde de Lekaroz:*** *Llevé la propuesta que se nos ofreció al batzarre del pueblo, el batzarre fue largo y se votó a favor.*
***Fernando Anbustegi, presidente:*** *Habrá que despejar muchas dudas, sin duda no está todo en manos de la Junta General, las normas urbanísticas las resuelve el ayuntamiento, aquí estamos hablando de la ocupación de terrenos comunales. Por un lado, aclarar el primer punto que salió en el batzarre de Elizondo, la duda era que no cumplía la ordenanza de Baztan. Que a un proyecto que incumpla la normativa no se le puede conceder o ceder suelo público, sólo aclarar que el convenio dice que la Junta General se compromete a ceder el suelo siempre que cumpla las condiciones que recoge a continuación. Si se vota hoy y es favorable, no quiere decir que se haga una cesión de tierras desde mañana, esto significa que la Junta General se compromete a ceder o dejar el suelo si cumple otras condiciones. No se cede ahora porque si no cumple la normativa urbanistica no se puede. Por*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/09

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/06/09

baditu, lurra lagatzeko edo uzteko. Ez da orain uzten, araua betetzen ez badu ezin delako. Bertzetik Mattari aipatu duzu ez zaudela gauza batzuen alde, hemendik aintzinera hasiko gara solasean gauza horiei buruz, hitzarmenak ez du ziurtatzen egin behar dela aurre proiektuan agertzen den guziari, hitzarmenean aipatzen dena da plan berezi bat aurkeztu beharko duela enpresak eta plan berezi hori udalak onartu beharko duela, edozein gauza ez da eginen, plan berezi hori onartu beharko da eta partehartze prozesu bat izanen du eta partehartze prozesu horretan herritarrek izanen dute aukera plan berezi horri buruz beraien iritzia emateko. Hor ikusiko da zer egiten ahal den, zer ez, eta egiten ahal bada zerbait, nola. Hitzarmen honek ez du inolaz ere onartzen BKZk aurkeztu duen aurre proiektua, gero hasi beharko gara solasean aurre proiektuari buruz.

**Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak:** Gaur egun solastatzea gauza hauetaz lotsa ematen dit, behin ematen duela ados gaudela, berriz arazoak, uzten bada mahaigainean, noiz arte jarraitu behar dugu, duela hamar urte baiezkoa edo ezezkoa eman baldin bazen akitu eginen zen, jendea nazkatua dago denakin. Behingoan zerbait erabaki beharko da.

**Fernando Anbustegi, batzar-burua:** Dudarik gabe, halere, hiru urte daramazkit erraten zu ere zinegotzia zarela eta zuk ere baduzula ardura bat, Batzar Nagusiko kide zara eta zuk parte hartzen duzu edo aukera duzu, hau ez da Mariano, Fernando edo ez dakit noren hitzarmena, hau Batzar Nagusiaren hitzarmena da. Azken hiru urtetan 30 aldiz elkartu da batzordea PAC-aren inguruan batez ere eta gai honen inguruan ere bizpahiru aldiz. Ez da Marianoren proposamena edo Fernandorena edo ez dakit norena, hau Batzar Nagusiaren batzordean landutako proposamena da eta aho batez honera ekarri dena. Batzordean aho batez adostutako hainbat proposamen ekarri ditugu Batzar Nagusira, eta zoritxarrez, batzorde horretan landutakoa eta adostutakoaren kontra bozkatu du zure alderdiak. Berriz ere errespetu pixka bat eskatuko dizut Batzar Nagusiari eta guttienez lanean ari direnei, ekarpenak egin, egin behar diren lekuan. Jendea aspertua dagoela diozu, bada, hortaz ari gara hau desataskatu nahian eta behingoan erabakiak hartu nahian, eta herritarrek erran beharko dute kontra edo alde dauden beren arrazoiak eman eta gero erabaki zer ein behar den.

**Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan:** Ongi erran duzun bezala hitzarmena ez dela ez zurea eta ez Marianorena, baina eskertu behar da egin duzuen lan haundia hitzarmena hau aintzinera eramateko. Hitzarmen honek bermatzen ditu proiektu honekin sortu diren kezka aunitz, baldintzatzen du gauzak ongi egitera enpresari eta administrazioari ere. Bertze aldetik guk hemen erabakitzen duguna erabakita ere, guk ez dugu inondik ere baimena ematen okupazio honekin biharko egunean egiten ahal dugu nahi duguna, hitzarmen hau bete beharko da eta bertze aldetik hirigintzan ere bere prozesu luzea eramanen du. Nahiko blindatua geratzen da interes publikoa edo

*otro lado Mattari ha comentado que no está a favor de unas cuantas cosas, de aquí en adelante empezaremos a hablar de estas cosas, el convenio no dice que haya que hacer todo lo que aparece en el proyecto, lo que se menciona en el convenio es que la empresa tendrá que presentar un plan especial para que lo apruebe el ayuntamiento, cualquier cosa no se hará, habrá que aprobar ese plan especial y habrá un proceso de participación en el que la ciudadanía tendrá la oportunidad de dar su opinión sobre ese plan especial. Ahí se verá qué se puede hacer, qué no, y si se puede hacer algo. El presente Convenio no admite en ningún caso el proyecto previo presentado por BKZ, luego habrá que empezar a hablar del mismo.*

***Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak:*** *Me da vergüenza hablar hoy en día de estas cosas, una vez que parece que estamos de acuerdo, otra vez los problemas, si se deja encima de la mesa, hasta cuándo tenemos que seguir, si hace diez años se hubiera dado el sí o él no se habría terminado, la gente está harta de todo. Habrá que decidir algo de una vez.*

***Fernando Anbustegi, presidente:*** *Sin duda, sin embargo, llevo tres años diciendo que tú también eres concejal y que tú también tienes una responsabilidad, eres miembro de la Junta General y tú participas o tienes la oportunidad, esto no es un convenio de Mariano, Fernando o no sé quién, esto es un convenio de la Junta General. En los últimos tres años la comisión se ha reunido 30 veces sobre todo en torno a la PAC y en torno a este tema dos o tres veces. No es una propuesta de Mariano o de Fernando o de no sé quién, esta es una propuesta trabajada en la comisión de la Junta General y que se ha traído aquí por unanimidad. Traemos a la Junta varias propuestas consensuadas por unanimidad en la Comisión y lamentablemente tu partido ha votado en contra de lo trabajado y acordado en dicha comisión. Vuelvo a pedirle un poco de respeto a la Junta General y a los que trabajan, que se hagan aportaciones donde hay que hacerlas. Dices que la gente está aburrida, así que estamos intentando desatascar el asunto y tomar decisiones de una vez por todas, y los ciudadanos tendrán que decir si están en contra o a favor y después decidir lo que hay que hacer.*

***Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan:*** *Como bien ha dicho, el convenio no es suyo ni de Mariano, pero hay que agradecer el gran trabajo que habéis hecho para llevar adelante este convenio. El presente convenio garantiza muchas de las preocupaciones surgidas con este proyecto, convina a la empresa y a la administración a hacer las cosas bien. Por otra parte, aunque decidamos lo que decidamos aquí, nosotros no permitimos en absoluto que con esta ocupación podamos hacer lo que queramos el día de mañana, habrá que cumplir este convenio y por otra parte llevará un largo proceso urbanístico. Queda bastante blindado el interés público o lo que queramos, sea la*

nahi duguna, errepidea dela edo dena delakoa. Elizondoko batzarrean egon nintzen ere, eta bai kezka batzuk atera ziren, ezinegon batzuk ere eta bakoitzak bere iritzia eta kezkak botatzen zituen. Elizondoko herriak mahaigainean uztea erabakitzen badu, hala izanen dela, bertzalde nahiko lotua dagoen dokumentua dela hau eta aurrera egiteko pausua dela eta biharko egunean ez dugu eskuak lotzen errateko enpresari zer egin behar duen, alde horretatik positiboa ikusten dugu egin duzuen dokumentu lan hau, aurrera egiteko ikusten dugu aukera.

**Mikel Sobrino, batzarkidea:** Andoniri erran, bera aspertua badago, ni aspertuago nagoela. Ordu gehiago eman ditudalako gai honen inguruan. Egia da barrideak ez direla inoiz proiektuaren kontra atera eta egon garela beti ikusten zein den modu egokiena gauzak ongi egiten ahal izateko. Alde batetik guk eskatzen ditugun gauzak egiteko eta bertze aldetik enpresak eskatzen dituen gauzak egiteko. Momentu batean bazirudien etxetxoak ezin zirela egin baina azkenean plan berezi baten bidez irudi du egiten ahal direla, gu ere ez ginen kontra atera. Batzar Nagusiko kideekin egon gara izan diren bileretan eta Robertorekin egon ginen azken bileran, guk beti erran dugu guretako karretera bezain garrantzitsua da trafikoan kudeaketa eta erran zitzaion Robertori berak aurkeztutako txostenean ez zela agertzen trafikoaren inguruko zehaztasun gehiegi, zerbait agertzen zen bileran berak ere erran zuen bazela asmoa, lanzadera, bazen asmoa parkina zenbat plaza, orduan bilera hartan gelditu ginen Robertorekin zehazteko, eta bera gelditu zen zehaztuko zituela, gero izan da arazo bat, ez zen informazioa ailegatu, orduan Elizondoko batzarra egin zenean ez genuen informazio hori, orduan sortu ziren zalantzak apuntatu ziren eta hortaz eskatzen da mahaigainean uztea.

**Iban Larretxea, mendi komisionatua:** Uste dut Elizondoko eta Elbeteko batzarrei duten kezkak argitu beharko zitzaizkiola, gero batzarrak erabaki bat hartzeko alde batera edo bertzera, kondizio batzuetan edo bertzetan, batzar horietan karretera kontua atera zen baina trafiko kontuan ez dago deus lotua, behin eta berriz erran zaio Mattariri, lantzaderena nola antolatu trafikoa eta ez du deus jartzen horren kontu, lantzadera paratuko duela baino ez du paratzen zenbat autobus joango diren, ez zein ordutegi, ez zein ordutegi tarte, ez da gauza bera modu ordenatu batean gurutzatzea autobusekin jakinik ze ordutegitan edo edozein ordutan edo 75 kotxerekin berak planteatzen duen bezala aurreproiektuan. Gero lur okupazioaren inguruan aurreproiektuan nik duda aunitz ditut, ez du gauza aunitzik argitzen, merenderoa ez dakigu 5 patu behar dituen edo 100, akanpatzeko ez dakigu zenbat hartu behar duen 10 metro karratu edo hektarea bat, hemen edozein pertsonek nahi badu luberri bat egin, ez zaio erraten egin ezazu luberria eta ikusiko dugu zenbat hartzen duzun, eskatzen zaio zenbat behar duen, orduan nire ustez kasu honetan ere berdin jokatu beharko zela eta zalantza guzi horiek Elizondoko eta Elbeteko herriei argitu beharko

*carretera o lo que sea. También estuve en el batzarre de Elizondo y sí, salieron algunas inquietudes, algunas dudas y cada uno daba su opinión. Si el pueblo de Elizondo decide dejarlo encima de la mesa, así será, que éste es un documento que está bastante ligado y que es un paso para avanzar y el día de mañana no nos ata las manos para poder decirle a la empresa qué tiene que hacer, en ese sentido vemos positivo este trabajo que habéis hecho, vemos la posibilidad de seguir adelante.*

***Mikel Sobrino, juntero:*** *Decirle a Andoni que, si él está aburrido, yo estoy más aburrido. Porque he dedicado más horas a este tema. Es cierto que los vecinos y las vecinas nunca han salido en contra del proyecto y que siempre hemos estado viendo cuál es la mejor manera de que las cosas puedan hacerse bien. Por un lado, para hacer las cosas que nosotros pedimos y por otro lado para hacer las cosas que la empresa pide. En un momento dado parecía que las casitas no se podían hacer, pero al final parece que se pueden hacer con un plan especial. Hemos estado con los miembros de la Junta General en las reuniones que se han mantenido y en la última reunión que estuvimos con Roberto. Nosotros siempre hemos dicho que la gestión en el tráfico es tan importante como la carretera y se le dijo a Roberto que en el informe que él presentó no constaba demasiado detalle sobre el tráfico, en la reunión él también dijo que había intención de concretar cuántas plazas había en el parking, entonces quedamos en aquella reunión con Roberto para concretar, y él se quedó en concretar, luego ha habido un problema, no llegó la información, cuando se celebró el batzarre de Elizondo no teníamos esa información, se apuntaron las dudas que habían surgido y por lo tanto se pide que se deje encima de la mesa.*

***Iban Larretxea, comisionado de montes:*** *Creo que las dudas de los batzarres de Elizondo y Elbete habría que aclarar, para que el batzarre tomara una decisión hacia un lado o al otro, unas condiciones u otras, en esos batzarres se comentó lo de la carretera pero de lo del tráfico no está nada atado, se le ha dicho una y otra vez a Mattari, cómo organizar el tráfico, con lanzaderas y no pone nada sobre ello, sólo pone que va a poner la lanzadera, ni el número de autobuses que van a ir, ni qué horario, horaria, no es lo mismo cruzarse ordenadamente con los autobuses sabiendo en qué horario o a qué hora, o con 75 coches como plantea el anteproyecto. Respecto a la ocupación de terreno yo tengo muchas dudas, no aclara muchas cosas, el merendero no sabemos si va a poner 5 o 100, para acampar no sabemos cuánto quiere ocupar 10 metros cuadrados o una hectárea, aquí si cualquier persona quiere hacer un luberri, no se le dice haz el luberri y veremos cuánto necesitas, se le pide cuánto necesita, entonces yo creo que habría que haber actuado igual en este caso y aclarar todas esas dudas a los pueblos de Elizondo y Elbete y luego tomar una*

zitzaizkiela, eta gero hartu erabaki bat, horrengatik bakarrik uste dut mahaigainean utzi beharko zela, argitu horiek eta gero erabaki.

*decisión, por eso solo creo que habría que dejarlo encima de la mesa.*

**Fernando Anbustegi, batzar-burua:** Hor dago proposamena, nik ez dut gaizki ikusten informazioa ematea, azkenean gero eta informazio gehiago izan erabakiak hartzeko hobe denendako. Azkenean erabaki bat hartuko da eta batzuei gustatuko zaie eta bertzei ez, orduan guttienez ez dadila izan informazio falta erabakiak hartzeko akatsa. Hala ere markatuko nuke, bozkatzera deituko dugu mahaigainean utzi edo ez, baina proposamen bat ere bai, ez luzatzeko berriz ere. Markatu mahaigainean uzten bada gero ondoko pausuak zeintzuk, zuek eskatzen duzue Elizondo eta Elbeteko herriek batzarrera enpresa joatea erantzunak ematera, hemen zalantzak heldu dira, nola kudeatu. Ematen ahal dugu epe labur bat, bertze herrietan zalantzarik baldin badago, zalantza guziak bildu, zalantzak idatziz erantzun eta eskatzen bada batzarrean parte hartzea, Elizondo eta Elbetek eskatu dute, bertze herriek ez dakit eskatuko duten edo ez eta enpresak 15 batzarretan parte hartu nahiko duen edo ez. Mahai gainean uztearen alde bozkatzeko ere jakin beharko da zer baldintzatan.

Nire proposamena: eman aste bat edo bi herri edo batzarkide bakoitzak bere zalantzak zerrendatzeko, gero horiek erantzun, batzuk enpresak erantzun beharko ditu, bertze batzuk behar bada udalak, idatziz, eta gero, Elizondon eskatu duzue presentzialki batzar bat egitea enpresarekin, eta bertze herriek behar badute eska dezatela.

***Fernando Anbustegi, presidente**: Ahí está la propuesta, yo no veo mal que se informe, al final cuanta más información, mejor para tomar decisiones. Al final se tomará una decisión y a algunos les gustará y a otros no, entonces que no sea por falta de información. Llamaremos a votar si lo dejamos sobre la mesa o no, pero también una propuesta para no prorrogarlo de nuevo. Si se deja encima de la mesa cuáles son los siguientes pasos. Vosotros solicitáis que la empresa acuda al batzarre de los pueblos de Elizondo y Elbete para dar respuestas. Podemos dar un plazo corto, si hay dudas en otros pueblos, recoger todas las dudas, responder las dudas por escrito y pedir participar en el batzarre, Elizondo y Elbete lo han pedido, los otros pueblos no sé si lo pedirán o no y si la empresa querrá participar en 15 batzarres o no. También habrá que saber, si se decide dejar encima de la mesa, en qué condiciones.*

*Mi propuesta: dar una o dos semanas para que cada pueblo o juntero enumere sus dudas, luego responderlas, unas las tendrá que responder la empresa, otras el ayuntamiento si hace falta, por escrito, y luego en Elizondo habéis pedido que se celebre un batzarre presencial con la empresa y que los demás pueblos lo pidan si lo necesitan.*

**Mattari Plaza, Lekarozko alkatea:** Komentatu bakarrik sinatu beharreko horretan uste dut arazo batzuk ere sortzen direla, 5. puntuan sortzen ahal dela batzorde bat jarraipena egiteko, bertan jartzen du nor egonen diren. Nire ustez sortu beharko da batzorde bat, beti zalantzak izango ditugu, ez badira gauza batenak, beste batenak izango dira. Ikusten dut bururatu zaionari batzorde hori sortzea, batzorde honek bideratu ditzakeela arazo pila bat, ez du zehazten batzordearen funtzio guztiak, bere erabakiak erabakikorrak izango diren edo ez, edo bakarrik kontsultiboa den. Ikusten dut hor badagoela tresna bat ona izan daitekeena sortzen diren arazoak bideratzeko, eta zehazki aipatzen du Batzar Nagusia, Elizondoko herria eta Elbeteko herria ere sartu beharko da, egia da besteek ez dugu zuzenean jasango hor sortu daitezkeen arazoak. Landu beharko da zein erabaki mota hartzen ahal dituen. Arazo gehienak Elizondoko herriak eta udaletxeak izan ditzake.

***Mattari Plaza, alcalde de Lekaroz:** Solo comentar que el convenio señala, en el quinto punto que se puede crear una comisión para seguimiento y aclarar dudas, en el mismo se indica quiénes estarán. Yo creo que habrá que crear esa comisión, siempre tendremos dudas, si no son de una cosa, serán de otra. Esta comisión puede encauzar un montón de problemas; no especifica todas sus funciones, ni si sus decisiones serán o no decisivas, o si es sólo consultiva. Veo que ahí hay una herramienta que puede ser buena para encauzar los problemas que surjan. En la misma deberían ser parte la Junta General, el pueblo de Elizondo y el pueblo de Elbete, los demás no vamos a sufrir directamente los problemas que puedan surgir. Habrá que trabajar en qué tipo de decisiones puede tomar. La mayoría de los problemas son para el pueblo de Elizondo y el ayuntamiento.*

**Iñaki Iantzi, Anizko alkatea:** Gure kasuan batzarra egin genuen, informazio nahiko genuen, Elizondoko herrien eskaera, bai BKZk eskatzen duena, hamaika galderak, beraien erantzuna, hau luzatzen ari da eta erantzun bat eman behar zaiola. Amaiurko herrian bi galdera egin ziren, gaur mahaigainean uzten baziren. Anizen mahai gainean uztearen kontra bozkatu genuen, nahikoa luzatu delako eta Mattarik erraten zuen bezala, jarraipen batzorde horrekin gauzak alde batera edo bestera joaten baziren, gero bideratzen

***Iñaki Iantzi, alcalde de Aniz:** En nuestro caso hicimos un batzarre, teníamos suficiente información, la petición de Elizondo, y también la de BKZ, esto se está alargando y que hay que darle una respuesta. En la localidad de Amaiur se formularon dos preguntas, por si hoy se dejaban sobre la mesa. En Aniz votamos en contra de dejarlo encima de la mesa, porque se ha alargado bastante y, como decía Mattari, si con esa comisión de seguimiento las cosas se pueden redirigir hacia donde todos pactamos. Lo que decidió ayer Aniz*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/09
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/06/09

ahal direlako denek adosten dugun aldera. Anizek atzo erabaki zuena izan zen bozkatzen bada mahaigainean uztea, gu ez gaude horren alde.

**Mikel Sobrino, batzarkidea:** Nik Mattariri erranen nion, bera barridea bazen ea ez zen saiatuko gauzak aitzinetik lotzen, eta ez gero arazoak baldin badaude, badago komisio bat arazo horiek konponduko dituena. Egon gara prozesu batean galde eskeak, erantzuna eta erraten duzu hobe dugula gelditu eta gero arazoak baldin badira, komisioak zuzendu ditzala. Ez da gauza bera Mattari, eta uste dut falta dugula trafikoaren inguruan lanketa bat eta eskatu dute Elizondoko eta Elbeteko batzarrak, ez du edozeinek eskatu. Neri berdin zait 18 boto edo 200 boto, orain arte Batzar Nagusiak errespetu aunitz izan du bertze herriek zer solasten duten, eta beti erran dugu herriek libre duela bozka, segun ze gaiaren arabera, segun ze tratatzen den eta eskatzen ari garena da informazioa, ez gara eskatzen ari hau luzatu hiru urte.

**Iban Larretxea, mendi komisionatua:** Komisioaren afera arras positiboa iruditzen zait, baina hemen planteatzen duzue komisio horrek konponduko dituela dudak eta gauzak ongi joanen direla eta barrideen eskaerak beteko direla. Nik ez dut horrela ikusten, adibide garbia dugu gaur hemen, Elizondoko eta Elbeteko herriek eskatu dute mahai gainean uztea informazio faltagatik, eta zenbait herrik erabakia hartu dute horren kontra bozkatzea, etorkizunean nork erraten digu ez dela berdin pasatuko, barrideek eskatzen duten, adibidez trafikoaren inguruko konponbideren bat ez onartzea gainerako herriek edo komisioak eta barrideen interesen kontra bozkatzea eta enpresa pribatu baten interesen alde bozkatzea, gaur hori pasatu behar da, eta etorkizunean ere gauza bera pasatzen ahal zaigu, eta barrideak gara egoera horiek bizituko ditugunak.

**Gaizka Oteiza, Oronozko alkatea:** Mahai gainean utzi edo ez, aportazio bat egin, ez dakit modu bat izango zen komisio horrek egon behar duen flujoan inguruko hori sartzea hitzarmenean kondizio bezala, zehaztatzea flujoa trafikoaren inguruko hori kondizioetan lur komunalak uzteko adibidez, hitzarmen horretan, komisioari utzi beharrean eman eta gero segimendua egiteko, sartu aintzinetik zehaztapena nola izango den hori edo horrelako zerbait ere.

**Mariano Iribarren, Bildu:** Gu, bai Fernando eta ni izan gara enpresarekin interlokuzioa egin dugun Batzar Nagusiko kideak edo udaletxeko kideak, gu hor sartu gara joan den urrian bi poste horiei enpresak uko egin zionean, Andonik momentu batean planteatu zuen hau noiz itxi behar dugun, momentu horretan bozkatu izan bazen ezezkoa atera izanen zen, hori ere gogoratu behar dugu. Pentsatu genuen hau desataskatu behar genuela, modu batean atera behar zela. Komisiotik nahiko kontent atera ginen, uste genuen nahiko ongi zegoela planteatutako hitzarmena eta gauzak nahiko lotuta daudela, ulertzen dugu barrideen kezka horiek, eta agian kasu batzuetan gauzak argitu beharko zirela gehiago, ba ez dakit posible izango duten enpresatik ere, agian argitzen ahal badituzte, barride horien

*fue si se vota dejar sobre la mesa, nosotros no estamos a favor de ello.*

***Mikel Sobrino, juntero:*** *Yo le diría a Mattari que si fuera vecino intentaría arreglar los problemas antes y no después para que los solucione una comision. Hemos estado en un proceso de preguntas, respuestas y dices que es mejor parar y luego si hay problemas, las corrija la comisión. No es lo mismo Mattari y creo que nos falta informacion en torno al tráfico, lo piden los batzarres de Elizondo y Elbete, no lo ha pedido cualquiera. A mí me da igual que sean 18 votos o 200 votos, hasta ahora la Junta General ha tenido mucho respeto por lo que dicen los pueblos, y siempre hemos dicho que los pueblos tienen el voto libre, depende de qué tema, según qué se trate y es información lo que se está pidiendo, no estamos pidiendo que esto se alargue tres años.*

***Iban Larretxea, comisionado de montes:*** *El asunto de la comisión me parece muy positivo, pero aquí planteáis que esa comisión resolverá las dudas y que las cosas irán bien y se cumplirán las peticiones de los vecinos. Yo no lo veo así, tenemos un claro ejemplo hoy aquí, los pueblos de Elizondo y Elbete han pedido que se deje encima de la mesa por falta de información y algunos pueblos han tomado la decisión de votar en contra de eso, quién nos dice que en el futuro que no va a pasar igual, que no se acepte alguna solución respecto del tráfico por ejemplo, votar en contra de los intereses de los vecinos y las vecinas y votar a favor de los intereses de una empresa privada, hoy pasa eso y en el futuro puede pasar lo mismo y somos los vecinos y las vecinas los que vamos a vivir estas situaciones.*

***Gaizka Oteiza, alcalde de Oronoz:*** *Dejar o no sobre la mesa. ¿hacer una aportación? No sé si sería una aportacion que la comisión y el flujo del trafico se regule en el convenio, en lugar de dejar a la comisión el seguimiento del convenio a posteriori, regularlo antes en el convenio y no despues.*

***Mariano Iribarren, Bildu:*** *Nosotros tanto Fernando como yo hemos sido los miembros de la Junta General o del Ayuntamiento que hemos hablado con la empresa, nosotros nos hemos metido ahí cuando la empresa renunció a esos dos postes en octubre pasado. Andoni pregunta en que momento vamos a cerrar esto, si se hubiera votado en aquel momento, hubiera salido que no, tenemos que recordar eso también. Pensamos que teníamos que desatascar esto, que había que sacarlo de alguna manera. De la comisión salimos bastante contentos, creíamos que estaba bastante bien el acuerdo planteado y que las cosas están bastante bien atadas, entendemos esas preocupaciones de la vecindad, y que quizás en algunos casos habría que aclarar las cosas más, pues*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/09
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/06/09

lasaitasunerako ez dut uste inongo problemarik izango denik hilabete bat gehiago luzatzen bada afera, baina Fernandok erran bezala gure ustetan markatu behar ditugu plazoak eta mahai gainean uzte hori ezin dela berriz ere arazoa izan, bertze ez dakit zenbat luzatzeko, neri izorratuko zaten 6 hilabeteren ondotik egin ditugun lan, bilera, proposamen guzien ondotik hau kajon batean gelditzea. Zentratzen badugu zer behar den, zein datak markatzen diren, eta noiz erabakiko den behin betikoz, gure aldetik ez dut uste arazorik izango denik pixka bat luzatzeko. Azkenean zergatik luzatzen ari da hau, badakigu gai korapilatsua delakoz, ez bakarrik karreteragatik, baita ere herri lurren erabilpen desberdin batzuengatik, orain arte herri lurrak gehien bat erabiltzen ziren lehendabiziko sektoreko ustiaketarako, kriston aldaketa da, eta honek kezka haundia sortzen du bailaran. Egia da, batzarretan jendea nazkatua dago ez du parte hartu nahi, jendeak ere erraten du hori aurrekari bat dela, uste duguna da herritarrei ahal bezain ongi argitu behar zaizkiola gauzak eta ahal bezain ongi lotu behar direla gauzak, bertzenaz horrelako egoerak sortzen ahal zaizkigu non nahi eta noiz nahi. Gaur bertan Andonik aipatu bezala prezedenteak sortzen ahal dira eta ondorioak ekar ditzakete. Gure aldetik, zentratzen badugu, zenbateko mahaigainean uzte hori, zein datetan itxiko dugun ez dugu arazorik mahaigainean uzteko.

**Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak:** Urrian gauza bera erran genuen, urte hasmentan egin beharra zen, gibelatu zen, berriz bertze sei hilabete eta berdin segitzen dugu, data jarri genuen eta berdin jarraitzen dugu.

**Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan:** Elizondoko eta Elbeteko herriek erraten direlarik, egia da batzar informatiboa, egia da 3 bat ginela batzarrean, normalean gehiago egoten gara. Elizondon egin den horretan Elbetetik jende guttiago etorri da. Erabakitzen badu Batzar Nagusiak mahai gainean uztea, eskertuko nuke Elizondon egin behar bada batzar informatiboa, Elbeten ere egitea.

**Fernando Anbustegi, batzar-burua:** Hauxe proposatzen dugu: mahaigainean utzi edo ez bozkatzea. Mahaigainean uzten bada 15 egun eman batzarkideok zalantzak zerrendatzeko eta udaletxean erregistro bidez sartzeko, 15 eguneko epea bihartik asi eta, apirilaren 16 arte. Apirilaren 16an galdera zerrenda pasatuko zaio enpresari eta udalari, apirilaren 30era arte erantzuteko epea. Gero batzarra Elizondo Elbete, bietan edo nola aukeratzen den, enpresako ordezkarien parte hartzearekin eta gainerako herriek nahi badute, eskatu eta enpresari erranen zaio.

Batzar Nagusiak, aldeko 16 botoz, kontrako 10 botoz eta 2 abstentzioz, erabaki du **akordioa mahai gainean uztea**, batzarretatik planteatutako zalantzak erantzun arte.

*no sé si también lo van a poder hacer desde la empresa no creo que haya ningún problema si el asunto se prolonga un mes más, pero como ha dicho Fernando tenemos que marcar los plazos y que el dejar encima de la mesa no puede volver a ser un problema, para prolongarlos no sé cuánto más, porque a mí me fastidiaría que después de los 6 meses de trabajo, de reuniones, de propuestas, esto se quede en un cajón. Si nos centramos en lo que hace falta, en las fechas que se marcan, y en cuándo se decidirá definitivamente, por nuestra parte no creo que vaya a haber problemas para alargarlo un poco. Al final por qué se está alargando esto, porque se trata de un tema complicado, no sólo por la carretera, sino también porque hasta ahora los terrenos comunales se utilizaban mayoritariamente para la explotación del primer sector, es un gran cambio que genera una gran preocupación en el valle. Es cierto, en los batzarres la gente está harta y no quieren participar, la gente también dice que eso es un precedente, lo que creemos es que hay que aclarar las cosas a la ciudadanía lo mejor que se pueda y atar las cosas lo mejor que se pueda, si no se nos pueden crear situaciones así en cualquier momento. Hoy mismo, como ha comentado Andoni, se pueden crear precedentes y pueden traer consecuencias. Por nuestra parte, si nos centramos en qué fechas lo vamos a cerrar no tenemos ningún problema en dejarlo encima de la mesa.*

***Andoni Irigoyen, Baztango Independienteak:*** *en octubre dijimos lo mismo, había que hacer a principios de año, se retrasó, otra vez otros seis meses y seguimos igual, pusimos fecha y seguimos igual.*

***Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan:*** *Cuando se dicen los pueblos de Elizondo y Elbete, es verdad que fue un batzarre informativo, es verdad, que éramos 3, normalmente solemos estar más. Al haberse hecho en Elizondo ha venido menos gente de Elbete. Si la Junta General decide dejar sobre la mesa, agradecería que, si hace un batzarre informativo en Elizondo, también se haga en Elbete.*

***Fernando Anbustegi, presidente:*** *Proponemos lo siguiente: votar si dejar sobre la mesa o no. Si se deja encima de la mesa se dé un plazo de 15 días para que los junteros enumeren sus dudas y registren en el Ayuntamiento, un plazo de 15 días a partir de mañana y hasta el 16 de abril. El 16 de abril se pasará la lista de preguntas a la empresa y al ayuntamiento, para responder tendrán hasta el 30 de abril. Luego, el batzarre en Elizondo, Elbete, en las dos o como se decida, con participación de la empresa, y los demás pueblos si quieren un batzarre, se pide y se le dice a la empresa.*

*La Junta General por 16 votos a favor, 10 en contra y 2 abstenciones,* ***acuerda dejar sobre la mesa*** *el presente acuerdo hasta que se contesten las dudas planteadas desde los batzarres.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2026/06/09

SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2026/06/09



**GALDE-ESKEAK**

**Pello Sarratea, Baztango Independientea:** Nik eskaera bat, ez dut lehen erran, faborez dokumentazioa ailegatzen dela honetaz, alkateei ez ezik, zinegotziei ere bidaltzea.
**Mariano Iribarren, Bildu:** Berriz ere nire aldetik barkamena eskatu, dena tarrapataka izan da, zubi baten aintzineko egunean izan zen eta alkateei bidali zitzaien eta gero atzendu zitzaidan. Publiko egiten ahal da, idazkariarekin solastu nuen eta belarritik tiratu zidan, publikoa egin dugu. Pasatuko zaizue beharrezko informazioa, eta barkatu informazioa ez partekatzeagatik.

Jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako Akta hau legezkoa egiten da, hasieran adierazitako egunean eta 20:14an bilkurari amaiera emanez, batzar-buruaren oniritzia izanik eta zigilaturik, eta nik neuk idazkariak fede emanda.

***RUEGOS Y PREGUNTAS***

***Pello Sarratea, Baztango Independientea:*** *Yo una petición, no he dicho antes, que por favor se haga llegar la documentación de esto, no sólo a los alcaldes, sino también a los concejales.*
***Mariano Iribarren, Bildu:*** *Por mi parte, vuelvo a disculparme, todo ha sido corriendo, fue el día anterior a un puente y se envió a los alcaldes y alcaldesas y luego se me olvidó. Se puede hacer público, hablé con el secretario y me tiró de las orejas, hemos hecho público. Se os pasará la información necesaria, y perdonad por no compartir la información.*

*No habiendo más asuntos que tratar, para constancia y efectos consiguientes, se formaliza la presente Acta, levantándose la sesión a las 20:14 horas del día al principio indicado, llevando el Vº Bº del Sr. presidente y sellada en forma, de lo que yo, el secretario, doy fe.*

BATZAR-BURUAK ONTZAT EMANA
*Vº Bº EL PRESIDENTE*

*IDAZKARIA*
*EL SECRETARIO*